



Winnif
E

EUSKO IKASKUNTZAK

Julio Caro Baroja

Euskal Herriaren Historiadore Sozial
Nazioarteko Eusko Ikaskuntzen Aldizkariaren Zuzendari
Irakasle min eta Pintore bikainari

Mende honen 5. hamarkadaz geroztik Julio Caro Barojaaren “Los Vas-cos” erreferentzigune eta aztergai izan da Euskal Herriko ikerle eta zientzilari gehienentzat. Batez ere, garai hartan lanean hasi eta gaur egun unibertsitate-geletan edota kultur eremuetan diharduten ikerle guztientzat. Caro Baroja etnologo, antropologo, irudigile eta, ezeren gainetik, historiadore sozialak anali-si zehatza eta aberatza, diakronikoa eta bizia egin zuen inguruko herriek baskoien izen zaharraz ezagutzen zuten errealitate aldakor eta konplexu hari buruz. Horrela, gure kulturaren ikertzailerik haundi eta zuzenetakoa bilakatu zitzaigun.

“Nolako egurra, halako ezpala” diote. Julio Carori bere osaba Piorengan-dik datozkio, nagusiki, Herriaren gauzetarako atxekidura eta zaletasuna. Hain zuzen ere, nere aitona Pedro Kortadirekin Donostiako Mirakruz kaleko etxe zaharrea, zumitzezko aulki batean eserita, soiasaldi luzeak izaten zituen aiton murrikari, ile zuri eta bufandadun harengandik.

Nere Aitonak, Narrika kalean jaioa zenak, karlistadetako eta Gipuzkoako bizimoduari buruzko pasadizo zaharrak kontatzen zizkion adiskide zuen idazle beratarriari, eta honen, gogoz eta arretaz, libretatxo batean apuntatu. Beti pentsatu izan dut Pio Baroja idazle bezain etnografo eta euskal animaren bildumari dela bere literatur lanean.

Zentzu horretan, bere iloba Julio Caro Barojak seriotasun haundiagoz, inola ahal bazen behinik behin, heldu zion bere osaba bohemiaren bigarren ofizioari. Don Julio euskal kulturaren Goi-Paleolitikoan murgildu da, gure lurralde hauen Neolitikoa eta Erromanizazioa ikertu ditu, Ertaro-Garaian, Ertaro-Behean, Argien Aroan eta azken urteotako Historia Sozialean aritu da xeheta-sun osoz. Julio Caro, era sobrio eta barojatarrez, Errenazimenduko gizakien antzera, ez da ezer jakinetan espezialista izan, baina bai, ordea, orotan zient-ziaz asetutako maisu. Eta, batez ere, zientziaren begiak maiz arakatu eta miatu gabe uzten dituen ikuspegi urrun eta leize sakonetako behatzaile fina.

Caro haundiak ez du gogoko topikokerian erortzea, behin eta berriz gai umeletan aritzea. “Los Vascos” (1949) hartatik hasi eta “Las brujas y su mundo” (1961), “Los Judíos de la España Moderna y Contemporánea” (1961), “La Hora Navarra del siglo XVIII” (1969) eta ia ehunkada bat titulurekin segituz, alderdi berriak landu ditu eta argitasuna ekarri dagoeneko ezagunak ziruditen edota erabat berriak ziren zenbait gai eta ikuspegiaren inguruan.

Davydd Greenwood-ek nik baino hobeto aztertzen ditu, Omenaldi honen hitzaurrean, Julio Caro Barojaren obrak eta ideiak, beronen ekarpena, azken funtzean. Antonio Carreira adiskideak Caro Barojaren Bibliografiaren berri xehea ematen digu. Neri, Eusko Ikaskuntzako Idazkari Nagusia naizen aldetik, Elkartearen eta beronen Lehendakari prestua den Jose Miguel Barandiaranen izenean, Institutzio honi eskaini dion lankidetzaz eskertzea dagokit.

Hasiera-hasieratik Julio Caro Eusko Folklore Urtekariko lankide izan zen, Barandiaranen itzalpean argitaratutako hainbat etnologi lanez; zenbait Udako Ikastarotan ere esku hartu zuen; Barandiaran Bekako Epaimahaikide izan da eta Nazioarteko Eusko Ikaskuntzen Aldizkaria bigarren fasean martxan jartze-ko lanean eta Zuzendaritzan aritu da, eta, bere jite kritiko eta liberalaz Elkar-teari orientabideak eman dizkio maiz.

Beraz, zor haundia du Eusko Ikaskuntzak Julio Caro Barojarekin, Horre-gatik eskaintzen zaio Omenezko Ale Berezi hau, Antonio Beristain bazkideak, Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Penaleko Katedradunak eragindako ekimena jasota.

Omenalde-dei honetara bakarrik gonbidatu dira NEIA-RIEVeiko lankideak, Eusko Ikaskuntzaren Batzarre Nagusiko kideak, Estatuko eta, bereziki, Euskal Herriko Unibertsitate eta Kultur Erakundeetako partaideak eta beren doktoreko-tesietan maisu haundi hau zuzendari izan duten zientzilari gazteak. Euskarologiaren eremu ezberdinetan egin dituen ekarpen baliotsuak omenaldi garrantzitsu eta trinko hau eskaintzeko zio eta merezimendu sobera dira. Haiei eta nere kide Juan Antonio Garmendia Elosegui eta Juan Garmendia Larrañaga Omenaldi haien antolaketa Batzordeko partaideei nere eskerronik zinezkoa.

Eta zuk, Julio Caro Baroja Jauna, bizitza luze bezain oparoa izan dezazu-la, herri nonen eta Nazioarteko Komunitate Zientifikoaren onerako.

Edorta Kortadi Olano

Idazkari Nagusia

EUSKO IKASKUNTZA
SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS

A Julio Caro Baroja
Historiador Social del Pueblo Vasco
Director de la Revista Internacional de los Estudios Vascos
Entrañable Profesor y Pintor Notable

Ya desde la década de los 50, “Los Vascos” de Julio Caro Baroja se convirtió en punto de referencia y estudio de gran parte de los investigadores y científicos del País Vasco. Sobre todo de los investigadores jóvenes que entonces comenzaban y hoy ejercen en aulas universitarias y en ámbitos de cultura. Caro Baroja, el etnólogo, antropólogo, dibujante y, sobre todo, historiador social hacía un análisis certero y rico, diacrónico y vivo de una realidad cambiante y compleja a la que los pueblos cercanos habían denominado con el nombre antiguo de los vascones. Se convertía así en uno de los estudiosos más importantes y certeros de nuestra cultura.

Como de casta le viene al galgo, a don Julio su amor y su afición por las cosas del País Vasco le vienen sobre todo de su tío Pío. De aquel viejo socarrón de pelo blanco y bufanda al cuello que, sentado en una silla de mimbre, dialogaba largas horas con mi abuelo Pedro Kortadi en su vieja casa de la calle Miracruz de Donostia.

Mi abuelo, nacido en la calle Narrica, contaba a su amigo, el escritor de Bera, viejos relatos de las Guerras Carlistas y de la Vida Guipuzcoana, que éste apuntaba en una pequeña libreta con afán y con esmero. Pío Baroja siempre he pensado que tiene tanto en su obra literaria de escritor como de etnógrafo y recopilador del alma vasca.

En este sentido, su sobrino Julio Caro Baroja se tomó más en serio todavía si cabe este segundo oficio de su tío el bohemio. Don Julio ha buceado en el Paleolítico superior de la Cultura Vasca, ha investigado en el Neolítico y en la Romanización de estas tierras, ha recorrido pacientemente la Alta y la Baja Edad Media, el Renacimiento, la Edad de las Luces y la Historia Social de los últimos siglos. Julio Caro Baroja, de una manera sobria y barojiana, a la manera de los hombres del Renacimiento, no ha sido especialista en nada, pero ha sido científicamente maestro en todo, ha sido sobre todo un fino oteador de horizontes lejanos y de simas profundas en las que el ojo científico a menudo no hurga ni escudriña.

Al gran Caro no le ha gustado demasiado el uso y el abuso del tópico ni del lugar y el tema ya manido. Comenzando por el tema de “Los Vascos” (1949) y siguiendo con el de “Las Brujas y su mundo” (1961) “Los Judíos de la España Moderna y Contemporánea” (1961), “La Hora Navarra del Siglo XVIII” (1969) y casi un centenar más de títulos ha ido aportando ininterrumpidamente nuevos aspectos y nuevas luces a panoramas y temas que parecían ya conocidos o eran absolutamente nuevos.

Davydd Greenwood analiza mejor que yo las Obras e Ideas, en definitiva, la aportación de Julio Caro Baroja en el Prólogo de este Homenaje. Nuestro amigo Antonio Carreira se encarga minuciosamente de su extensa Bibliografía. A mí, como Secretario General de la Sociedad de Estudios Vascos, no me queda más que agradecer en su nombre y en el de su magnífico Presidente, don José Miguel de Barandiarán, su colaboración con esta Institución.

Ya desde sus inicios colaboró don Julio en el Anuario de Eusko Folklore con diversos trabajos etnológicos bajo la sombra de Barandiarán, tomó parte en algunos Cursos de Verano, ha sido jurado de la Beca Barandiarán y tomado parte en la puesta en marcha y Dirección de la Revista Internacional de los Estudios Vascos en esta segunda fase y ha orientado a la Sociedad con su talante crítico y liberal en numerosas ocasiones y momentos.

Es mucho, por tanto, lo que la Sociedad de Estudios Vascos debe a don Julio. Y es por todo esto por lo que, recogiendo la iniciativa de nuestro socio don Antonio Beristain, Catedrático de Derecho Penal de la Universidad del País Vasco, se le dedica este Número Extraordinario de Homenaje a don Julio Caro Baroja.

A la convocatoria de este Homenaje se ha invitado exclusivamente a los colaboradores de la RIEV, a los miembros de la Junta Permanente de la SEV, a personalidades de las Instituciones Universitarias y Culturales del Estado, y especialmente del País Vasco, y a jóvenes valores a quienes el maestro ha dirigido sus tesis doctorales. Sus valiosas aportaciones en diversos campos de la vascología han hecho posible este importante y macizo Homenaje. A ellos y a mis compañeros Juan Antonio Garmendia Elósegui y Juan Garmendia Larrañaga, miembros del Comité Organizador de este Homenaje, mi reconocimiento y agradecimiento más sentido.

Y a usted, don Julio Caro Baroja, largos años de vida, para bien del País y de la Comunidad Científica Internacional.

Edorta Kortadi Olano

Secretario General